Usurbilgo Udala

2023/01/19

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO URTARRILAREN 19AN EGUERDIKO 13:00EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2022/12/27KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2022ko abenduaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- CONSTRUCCIONES ZUBIEDER S.L.-RI ESLEITZEA USURBILGO ALTAKO UR HORNIDURA INSTALAZIOAREN HOBEKUNTZA LANAK GAUZATZEKO OBRA KONTRATUA (ID.05/2022-0144).

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 27ko erabakiaren bidez Usurbilgo altako ur hornidura instalazioaren hobekuntza lanak gauzatzeko obra kontratatzeko espedienteari onespena eman zitzaion, prozedura ireki arruntaren bidez, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta epe barruan lizitatzaile bakarra aurkeztu da: Construcciones Zubieder S.L.

2022ko azaroaren 11ko Kontratazio Mahaiak A artxibo elektronikoa ireki eta honen edukia ontzat eman ondoren, B artxibo elektronikoa ireki eta edukia saileko teknikariari eman zitzaion azterketa eta balorapena egin zezan.

Zerbitzu saileko teknikariak txostena osatu zuen eta horren arabera aurkezturiko agiriak pleguetako baldintzak betetzen zituen. 2022ko azaroaren 18ko Kontratazio Mahaia bildurik, C artxibo elektronikoa ireki zen eta lizitatzailearen eskaintza honakoa izan zen:

- Prezioa: 720.000 euro (%21eko BEZ barne 871.200 euro)
- Bermea: guztira 3 urte

2022ko abenduaren 2ko Tokiko Gobernu Batzarrak eskaintza ekonomiko onena egin zuena Construcciones Zubieder S.L. zela zehaztu eta errekerimendua egin zitzaion, jakinarazpena

jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak aurkeztu zitzan.

Construcciones Zubieder S.L. enpresak 36.000 euroko behin betiko bermea (2022-JBAL-000012) eta gainerako agiriak aurkeztu ditu.

Kontratazio teknikariak esleipenaren aldeko txosten egin du.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: Construcciones Zubieder S.L.-i esleitzea Usurbilgo altako ur hornidura instalazioaren hobekuntza lanak gauzatzeko obra.

BIGARRENA: 871.200 euroko gastua baimentzea honako kontu-sailaren kontura: 17000.601.161.00.01 (2022) A 1692-2022

HIRUGARRENA: Construcciones Zubieder S.L.-ri dei egitea kontratua 15 egun balioduneko epean sinatzeko, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita eta kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki hau Construcciones Zubieder S.L.ri jakinaraztea eta Zerbitzu sailari eta kontu-hartzailetza sailari berri ematea.

3.- EGUZKI ETXEAN (KALEZAR 38) JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (HZ.04/2021-137).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0137

EGUZKI ETXEKO –KALEZAR 38– JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkaritzan diharduen MARIA MERCEDES OLAIZOLA MAIZ andereak, Eguzki etxean (Kalezar 38) jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko maiatzaren 11ean, zera erabaki zuen: EGUZKI ETXEKO –KALEZAR 38– JABEKIDEEN ELKARTEAREN ordezkaritzan diharduen BORJA GABILONDO ANSORENA jaunari, Eguzki etxean (Kalezar 38) igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	48.576,35 €

Obra amaierako ziurtagiria:	**49.839,48 €**
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 290 €
	Fidantza (%120): 348 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, EGUZKI ETXEKO –KALEZAR 38– JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20706925) ordezkaritzan diharduen MARIA MERCEDES OLAIZOLA MAIZ andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko urtarrilaren 5ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* Eguzki etxean (Kalezar 38) jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko irailaren 12an ezarritako 348,00 €-tako fidantza (IE 63-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian:

HIRUGARRENA: Erabakia Kontuhartzaileari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

4.- ZUBIETAKO LANBIDE ESKOLAN (CIFP USURBIL LHII IKASTETXEA) IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRAK BURUTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2022OHAN0025).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0417
2022-OHAN-0025

Usurbilgo Udala

2023/01/19

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZAK, Zubietako Lanbide Eskolan (CIFP USURBIL LHII ikastetxea) irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 1.003.384,97 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.A artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 23.291,86 €
	Fidantza (%120): 27.950,23 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2023ko urtarrilaren 3an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZARI, ubietako Lanbide Eskolan (CIFP USURBIL LHII ikastetxea) irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

    - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 23.291,86 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (27.950,23 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

      27.950,23 **€-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2022-0417"* jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta udal aparejadorearekin **zuinketa akta** izenpetu beharko da.

- AGM ARQUITECTOS, S.L.P. taldeko Xabier Agirre Alzuru, Unai Gamboa Moreno eta Enrique Munoa Fagoaga arkitektoek 2022ko uztailean idatzitako Exekuzio

Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.

- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 9 hilabete.

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA*:* Obren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena eskatu beharko da.

- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak* eta *Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.

- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala, indarrean dagoen araudia bete beharko da.

- Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: AASS Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.

- Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke.

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**

  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

- Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
- Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
- Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
- Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.

- Indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri, elementu edota obraren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da eta, beraz, ez da baimen honetan inplizituki ontzat ematen.

  Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta obrak gauzatzearen ondoren sor daitezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak betetzeak egindako obra lanak eraldatzea badakar.

- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**

  – Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  – Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  – Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
  – Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA*:* Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- SANTUENEA 20 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2022OHAN0030).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0462
2022-OHAN-0030

SANTUENEA 20 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkaritzan diharduen Jose María Lluch Lafuente arkitektoak, Santuenea 20 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 94.791,99 €
Hondakinen Kudeaketarako	Aurrekontua: 800 €

Usurbilgo Udala

2023/01/19

Azterlana:	Fidantza (%120): 960 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2022ko abenduaren 26an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* SANTUENEA 20 ETXEKO JABEKIDEEI, Santuenea 20 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, dagokion elkargoak ikus-onetsia, udalaren oniritzia jaso dezan.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

    - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 800 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (960 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

      960 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2022-0462"* jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta udal aparejadorearekin **zuinketa akta** izenpetu beharko da.

- Sergio Villar Sueskun eta Jose María Lluch Lafuente arkitektoek 2022ko urrian idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
    - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
    - Obra gelditua egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
    - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 12 hilabete.

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA*:* Obren egikaritzan lurzoru publikoa

okupatu behar bada, dagokion baimena eskatu beharko da.

- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak* eta *Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.

- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala, indarrean dagoen araudia bete beharko da.

- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.

- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, … e.a.).

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

- **Behin obrak bukatu ostean, eta <u>Lehen Erabilera</u> baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**

    - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
    - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
    - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
    - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
    - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.

- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA*:* Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

6.- LERTXUNDI BASERRIAN ERABERRITUTAKO ZUBIETA 22 D ETXEBIZITZARI LEHEN ERABILERA BAIMEAN EMATEA (HZ.04/2020-0083).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0083

MIRABELA NICOLE MATEIES IOVAN andereak, Lertxundi baserrian, eraberritutako Zubieta 22 D etxebizitzaren lehen erabilera udal baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 14an, zera erabaki zuen: MIRABELA NICOLE MATEIES IOVAN andereak, Lertxundi baserrian, Zubieta 22 D etxebizitza eraberritzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	196.944,19 €
Obra amaierako kitapena:	**197.932,00 €**
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.114,38 €
	Fidantza (%120): **2.537,25 €**

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraberritutako etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskatu da.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Eransun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2023ko urtarrilaren 12an, aldeko txostena eman du.

Usurbilgo Udala

2023/01/19

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* MIRABELA NICOLE MATEIES IOVAN andereak, Lertxundi baserrian, eraberritutako Zubieta 22 D etxebizitzari lehen erabilera ematea

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2020ko abuztuaren 20ean ezarritako 2.537,25 €-tako fidantza (IE 44-2020) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian:

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri udal kontuhartailetzari ematea, ordaindu beharreko udal zergen behin betiko kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabaki hau interesatuari eta diruazainari ematea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 13:20ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.